

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua, PAM, arrakastatsua izan dadin eta egoki funtziona dezan, ezinbestekoa da enpresaren funtsezko baliabideak zeintzuk diren argitu eta multzotan banatzea. Hortaz, PAM-eko funtsezko baliabideak 4 taldeetan banatuko ditugu: *baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.*

BALIABIDE FISIKOAK:

- Ogiaren produkziarako **LOKALA**.
- Taldea elkartzeko, lan egiteko, erabakiak hartzeko, enpresaren gorabeherak aztertzeko... **BILTOKIA**.
- Biltokian lan egiteko erabili beharreko **ORDENAGAILU, TELEFONO** eta bestelako **GAILU ELEKTRONIKOAK**.
- Ogiaren produkziarako behar diren **MAKINA ELEKTRONIKOAK**.
- Ogiaren produkziarako behar diren **ELIKAGAIAK**.
- Ogiaren produkziarako behar diren **LANABESAK**.

BALIABIDE INTELEKTUALAK eta GIZA-BALIABIDEAK:

Alde batetik, Iker Ormaetxeak web-orriekin, sare sozialekin eta **informatikarekin** orokorrean duen **abilezia** baliatuko dugu. Bestetik, Aimar Samaniegoren **abilezia sozial eta komertzialak**: bezeroekin harremanetan jartzeko, bankuekin eta inbertsoreekin kontaktuan aritzeko, enpresaren izena eta irudia bultzatzeko eta merkatuak eskatzen duena identifikatu eta sortzen lortzeko. Eta azkenik, Markel Murillok duen **ekonomiari** buruzko **jakinduria**: besteak beste, diru-sarrerak kontrolatzeko, gastuak gutxitu eta irabaziak handitzeko eta enpresaren biziraupena bermatzeko.

FINANTZA-BALIABIDEAK:

Batetik, enpresaren jabeok ditugun **AURREZKIAK** erabiliko ditugu. Horrez gain, hasteko beharko dugun dirua lortzeko eta kapital anpliazioak egin ahal izateko, **PRESTAMOAK** ere eskatuko ditugu. Eta azkenik, hastea pauso garrantzitsu eta zailena denez, **INBERTSOREEN PARTEHARTZEA** ere izango dugu. Azken hauek, hasiera batean Donostian irekiko dugun zentroaren zati bat bereganatuko dute diru kopuru baten truke. Zenbat eta handiagoa izan inbertitutako diru kopurua, orduan eta handiagoa izango da lortuko duten enpresaren pertzentaia.

